



#KONTXA365 ZOZKETAREN OINARRIAK

LEHENDABIZIKOA. Zozketa honetan parte hartzeko, formularioko bi urratsak bete beharko dira. Lehenengo urratsa: aukeratu traol-hitza, eta ondoren idatzi e-maila eta nongoa zaren. Bigarren urratsa: partekatu bideoa Facebooken, lagun bat aipatuta.

BIGARRENA.

Zozketa egingo da lehendabiziko puntuak aipatutako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaile guztien artean. Irabazlea ez bada ipintzen harremanetan Donostia Turismoa SArekin 72 orduren barruan, zozketa berriro egingo da.

HIRUGARRENA.

Parte hartzeko epea 2018ko martxoaren 27an hasiko da, eta apirilaren 15ean amaituko, 23:59an. Zozketaren irabazlea apirilaren 17tik aurrera argitaratuko da www.sansebastianturismo.com webgunean eta Donostia Turismoa SArekin Facebookeko profiletan.

LAUGARRENA.

Zozketaren irabazleak honako hauek irabaziko ditu: Donostiara etortzeko bi lagunentzako hegaldi bat, Iberia konpainiarekin; 3 gau Londres hotelean****, itsasora begira eta gosariarekin; eta 200 \$-ko kupoia TripAdvisor esperientzietan gastatzeko.

Baldintzak:

- Iberiaren edozer hegaldik balioko du, 5000, 7000 eta 8000 serieetakoek izan ezik. Eskaintzak ez du balioko denboraldi murriztuan; hau da, abenduaren 20tik urtarrilaren 9ra, Pazko Astelehena baino aurreko 7 egunetan eta osteko 2 egunetara bitartean, eta ekainaren 25etik irailaren 5era bitartean. Hegaldiaren data 15 egun aurretik jakinarazi beharko da, eta irabazleek euren gain hartuko dituzte aireportuko tasak. *Turista klasea, aireportuko tasak ez daude barne, data murriztaileetan ezingo da bidaiatu eta erabilgarritasun-egoeraren menpe egongo dira. Iberia eta Iberia Regional Air Nostrum konpainiaren hegaldiak soilik.*
- Londres hoteleko egonaldirako, erabilgarritasun-egoera kontsultatu beharko da aurrez hotelera deituta. Eskaintzak 2018ko azaroaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra balioko du, honako hauetan izan ezik: Donostia-Behobiako asteburuan, Konstituzioko zubian eta Urtezahar-gauean.



- Tripadvisor eskaintzei dagokienez, berriz, webgunean eskaintzen direnak izango dira, gehienez ere 200 \$-ko zenbatekoarekin:
https://www.tripadvisor.es/Attraction_Products-g187457-San_Sebastian_Donostia_Province_of_Guipuzcoa_Basque_Country.html

BOSGARRENA.

Donostia Turismoa SAK berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

SEIGARRENA.

Donostia Turismoa SAK oinarriotan aurrez ikusi gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita oinarrion interpretazioan sor litezkeen zalantzak ere.

ZAZPIGARRENA.

Zozketan parte hartzeko Donostia Turismoa SAREN webguneko formularioan emandako datu pertsonalak esandako erakundeak tratatuko ditu, Donostiako Udalaren kontu, eta azken hark hartuko du trataeraren ardura. Datu pertsonalak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, datu pertsonalak babestekoaren, arabera tratatuko dira.

Datu pertsonalen tratamenduak honako helburu hau dauka: zozketako erabiltzaileen partaidetza kudeatzea, eta, pertsona horiek dagokion laukitxoa aukeratuta baimena emanaz gero, aldian-aldian Donostia Turismoa SAREN jarduerari eta zerbitzuei buruzko sustapen-informazioa helaraztea bitarteko elektronikoak baliatuta. Webguneko formularioan eskatutako datuak jakinaraztea ezinbestekoa da zozketan parte hartu ahal izateko.

Irabazlearen datuak Donostia Turismoa SAREN webgunean argitaratuko dira, baita Facebookeko profiletan ere. Erabiltzaileak datu pertsonalok eskuratu, zuzendu, ezeztatu edota aurkaratu ahal izango ditu. Horretarako, Donostia Turismoa SAREN posta-helbidera idatzi dezake (Boulevard 8, 20003 Donostia, Gipuzkoa), edota sansebastianturismo@donostia.eus emailera bestela.

ZORTZIGARRENA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.